

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Lapuebla de Labarcako Udalaren laguntzak, 2023/2024 ikasturtean euskara ikasteko

Euskara ikasteko laguntzak arautzen dituzten indarreko oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honen bidez 2024rako deialdia egiten da, 2023/2024 ikasturtean 2023ko urriaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egiten diren eskola jarduerari dagokiena.

Lehenengoa. Onuradunak

Ordenantza honetan ezarritako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte Lapuebla de Labarcako udalerrian errolatutako pertsona fisiko guztiek, betetzen badituzte honako baldintza hauek eta laugarren oinarrian ezarritakoak:

– Lapuebla de Labarcako udalerrian errolaturik egotea dirulaguntza eskatzen den ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez eta etengabe.

– 16 urte baino gehiago edukitzea.

– Edozein euskara ikastegitan matrikulatuta egotea 2023/2024 ikasturtean (2023ko urritik 2024ko ekainera arte) lehenengo oinarri arauak zehaztutako edozein ikastaro motatan.

– Ezin dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13.2. artikuluan zehazten dituen inguruabarretako bat betetzen ez duten pertsonak, ez entitateak.

– Ezin izango dira dirulaguntzaren onuradun izan laguntza hau jasotzeko kontuan hartzen den aldiaren hasieran derrigorrezko eskolatze adina duten pertsona fisikoak, eskolatuta egon ala ez.

– Egunean eduki behar dira Lapuebla de Labarcako Udalaren diru kutxei egin beharreko ordainketak, eta beteta Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Bigarrena. Xedea

Euskara ikastaroetako matrikula gastuak ordaintzeko Udalaren dirulaguntzak, hizkuntza horren ezagutza handitzeko eta erabilera normalizatzeko asmoz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Hasierako onespina eman zitzaien 2017ko apirilaren 20ko osoko erabakiaren bidez, eta behin betiko argitalpena ALHAOn 76. zenbakian egin zen, 2017ko uztailaren 5ekoan, haien kontrako alegaziorik aurkeztu ez zenez behin betiko onetsita, 2024/2027rako dirulaguntza plan estrategikoarekin bat etorriz.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikasturteko matrikularen ehuneko 50 izango da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 15 egun naturaleko epea egongo da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Azken eguna baliogabea baldin bada, hurrengo lehen egun baliogabea luzatuko da.

Eskabideak, deialdi honetan zehazten den ereduaren arabera, eta Alkatezari zuzenduta, adierazitako agiriekin batera Lapuebla de Labarcako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (El Plano plaza, 9 zenbakia), edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko b) letratik e) letrara arte adierazten diren tokietako edozeinetan.

Seigarrena. Aurrekontu partida

Gastua indarrean dagoen udal aurrekontuko 2024.335.480 partidari egotziko zaio, 2.000,00 euroko hornidurarekin. Onartutako eskaerek zenbateko hori gaindituz gero, egiaztatutako zenbatekoaren proportzioan murriztuko dira laguntzak.

Zazpigarrena. Instruktoea

Lehen alkateordea izendatuko da instruktore.

Zortzigarrena. Eskaera orria

..... jaunak/andreak (NANA/AIZ:),n matrikulatutako ikaslea denez, honen bidez, Lapuebla de Labarcako Udalak euskara ikastegi ofizial edo homologatutako matrikula gastuak (autoikaskuntza zentroak barne) finantzatzeko helburuaz 2023/2024 ikasturterako egindako laguntza deialdia dela eta,

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT

Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan jasotako inolako egoeratan.

Egunean dagoela zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta berariazko baimena ematen diola Lapuebla de Labarcako Udalari informazio hori zuzenean administrazio eskudunetatik eskuratzeko.

Helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jaso izana beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik:

EZ.

BAI,k emanda, euroko zenbatekoaz.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DUT

Arauz izan daitekeen gehieneko laguntza, jatorrizko agiri hauek aurkeztuta, Udalean konpultsatzeko:

- Eskaera ofiziala.
- Ikastegiaren ziurtagiria, ondoko hauek adierazten dituena: ikaslearen identifikazio datuak, ikastaroaren kostua (irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak bereiziz, barnetegia izatekotan), egindako ikastaroa (maila eta eskola orduen kopurua adieraziz), hasiera eta bukaera egunak.
- NANA edo AIZa.
- Xede bererako beste laguntza batzuk onartu edo jaso izanaren ziurtagiria, hala dagokionean.
- Hirugarrenen fitxa, laguntza ordaintzea nahi den banketxearena.

Halaber, honako agiri osagarri hauek ere aurkezten ditu (ez da nahitaezkoa eskaera egiteko garaian):

- Ikastaroko asistentzia mailaren ziurtagiria, ahal izanez gero, emandako ordu guztien gainean asistentzia orduen ehunekoa adieraziz.
- Fakturak eta gainerako froga-agiriak, merkataritza edo administrazio balioa dutenak.
- Ordainketaren froga-agiriak.

Datuak egiaztatzea - kontsultaren aurka egitea.

Egiaztatu daitezkeen datuak eta agiriak.

Lapuebla de Labarcako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekaritza sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden datuak egiaztatu eta kontsultatzeko eragiketak egingo ditu, salbu eta zuk horren aurka zaudela adierazten baduzu (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).

Datuak edo agiria: Aurka egiten dut.

– Ogasunari (Arabako Foru Aldundia eta udala) ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

– Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria.

– Udal errolda ziurtagiria.

Zure datuak egiaztatzearen aurka bazaude, markatu X.

Oposizioaren justifikazioa: aurka bazaude, horren zergatia azaldu beharko duzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, inprimaki honetan jasotzen diren datu pertsonalak fitxategi automatizatu bati erantsiko zaizkio, udal honen barruan erabiltzeko helburuaz bakarrik. Haien titularrak, udal honetara joaz, zuzentzeko edo ezeztatzeko eskubideaz baliatu daitezke, legean ezarritakoari jarraituz.

Lapuebla de Labarca, 2024ko ekainaren 26a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ